

**EAEko IBAIEN ETA ERREKEN ERTZAK ANTOLATZEKO  
LURRALDEAREN ARLOKO PLANA - ISURIALDE  
KANTAURIARRA**

MEMORIA PARTIKULARRA

**A. BIZKAIKO ITSASERTZERA ISURTZEN DUTEN IBAIAK**

1998ko AZAROA

**EAEko IBAIEN ETA ERREKEN ERTZAK ANTOLATZEKO  
LURRALDEAREN ARLOKO PLANA- ISURIALDE KANTAUARIARRA  
(BIZKAIA-ARABA)**

MEMORIA  
PARTIKULARRA

**1.2. MEMORIA PARTIKULARRA**

**A. BIZKAIKO ITSASERTZERA ISURTZEN DUTEN IBAIAK**

A.1. SARRERA

A.2. ARTIBAI IBAIAREN ARROAREN DESKRIBAPEN OROKORRA

A.2.1. Ingurugiro-osagaiaren alderdiak

A.2.2. Hidraulika-osagaiaren alderdiak

A.2.3. Hirigintza-osagaiaren alderdiak

A.3. LEA IBAIAREN ARROAREN DESKRIBAPEN OROKORRA

A.3.1. Ingurugiro-osagaiaren alderdiak

A.3.2. Hidraulika-osagaiaren alderdiak

A.3.3. Hirigintza-osagaiaren alderdiak

A.4. OKA IBAIAREN ARROAREN DESKRIBAPEN OROKORRA

A.4.1. Ingurugiro-osagaiaren alderdiak

A.4.2. Hidraulika-osagaiaren alderdiak

A.4.3. Hirigintza-osagaiaren alderdiak

A.5. SOLLUBE IBAIAREN ARROAREN DESKRIBAPEN OROKORRA

A.5.1. Ingurugiro-osagaiaren alderdiak

A.5.2. Hidraulika-osagaiaren alderdiak

A.5.3. Hirigintza-osagaiaren alderdiak

A.6. ESTEPONA IBAIAREN ARROAREN DESKRIBAPEN OROKORRA

A.6.1. Ingurugiro-osagaiaren alderdiak

A.6.2. Hidraulika-osagaiaren alderdiak

A.6.3. Hirigintza-osagaiaren alderdiak

A.7. BUTROE IBAIAREN ARROAREN DESKRIBAPEN OROKORRA

A.7.1. Ingurugiro-osagaiaren alderdiak

A.7.2. Hidraulika-osagaiaren alderdiak

A.7.3. Hirigintza-osagaiaren alderdiak

A.8. ARRO TXIKIEN DESKRIBAPEN OROKORRA

A.8.1. Ingurugiro-osagaiaren alderdiak

A.8.3. Hirigintza-osagaiaren alderdiak

A.9. GOBELA IBAIAREN ARROAREN DESKRIBAPEN OROKORRA

A.9.1. Ingurugiro-osagaiaren alderdiak

A.9.3. Hirigintza-osagaiaren alderdiak

**A.10. ASUA IBAIAREN ARROAREN DESKRIBAPEN OROKORRA**

- A.10.1. Ingurugiro-osagaiaren alderdiak
- A.10.2. Hidraulika-osagaiaren alderdiak
- A.10.3. Hirigintza-osagaiaren alderdiak

**A.11. GALINDO IBAIAREN ARROAREN DESKRIBAPEN OROKORRA**

- A.11.1. Ingurugiro-osagaiaren alderdiak
- A.11.2. Hidraulika-osagaiaren alderdiak
- A.11.3. Hirigintza-osagaiaren alderdiak

**A.12. BARBADUN EDO MERCADILLO IBAIAREN ARROAREN DESKRIBAPEN OROKORRA**

- A.12.1. Ingurugiro-osagaiaren alderdiak
- A.12.2. Hidraulika-osagaiaren alderdiak
- A.12.3. Hirigintza-osagaiaren alderdiak

**A.13. AGUERA IBAIAREN ARROAREN DESKRIBAPEN OROKORRA**

- A.13.1. Ingurugiro-osagaiaren alderdiak
- A.13.2. Hidraulika-osagaiaren alderdiak
- A.13.3. Hirigintza-osagaiaren alderdiak

**A.14. KARRANTZA IBAIAREN ARROAREN DESKRIBAPEN OROKORRA**

- A.14.1. Ingurugiro-osagaiaren alderdiak
- A.14.3. Hirigintza-osagaiaren alderdiak

**A.15. KALERA IBAIAREN ARROAREN DESKRIBAPEN OROKORRA**

- A.15.1. Ingurugiro-osagaiaren alderdiak
- A.15.2. Hidraulika-osagaiaren alderdiak
- A.15.3. Hirigintza-osagaiaren alderdiak

**A.16. IBAIZABAL IBAIAREN ARROAREN DESKRIBAPEN OROKORRA**

- A.16.1. Ingurugiro-osagaiaren alderdiak
- A.16.2. Hidraulika-osagaiaren alderdiak
- A.16.3. Hirigintza-osagaiaren alderdiak

**A.17. NERBIOI IBAIAREN ARROAREN DESKRIBAPEN OROKORRA**

- A.17.1. Ingurugiro-osagaiaren alderdiak
- A.17.2. Hidraulika-osagaiaren alderdiak
- A.17.3. Hirigintza-osagaiaren alderdiak

**A.18. KADAGUA IBAIAREN ARROAREN DESKRIBAPEN OROKORRA**

- A.18.1. Ingurugiro-osagaiaren alderdiak
- A.18.2. Hidraulika-osagaiaren alderdiak
- A.18.3. Hirigintza-osagaiaren alderdiak

## **MAPAK**

- A.O. MAPA OROKORRA, 1/150.000 ESKALAKOA.
  - A.1.1. Artibai eta Lea ibaien arroen mapa orokorra
  - A.1.2. Ea, Lagako, Oka, Amunategi, Artigas, Azega, Estepona eta Sollube ibaien arroen mapa orokorra.
  - A.1.3. Merdeka, Andrakas eta Butroe ibaien arroen mapa orokorra
  - A.1.4. Gobela eta Asua ibaien arroen mapa orokorra
  - A.1.5. Mercadillo eta Galindo ibaien arroen mapa orokorra
  - A.1.6. Aguera, Karrantza eta Kalera ibaien arroen mapa orokorra.
  - A.1.7. Ibaizabal ibaiaren arroaren mapa orokorra
  - A.1.8. Nerbioi ibaiaren arroaren mapa orokorra
  - A.1.9. Kadagua ibaiaren arroaren mapa orokorra.

**EAEko IBAIEN ETA ERREKEN ERTZAK ANTOLATZEKO  
LURRALDEAREN ARLOKO PLANA - ISURIALDE KANTAUARIARRA  
(BIZKAIA-ARABA)**

MEMORIA  
PARTIKULARRA

**A.1. SARRERA**

1. agiriaren atal honetan beren ubide nagusien artean beren urak Bizkaiko itsasertzean isurtzen dituzten ubideak dituzten arroen inguruko informazio partikularra bildu dugu.

LAParen gainerako zatian bezalaxe, informazio horrek prestatzeko erabilitako hiru baldintzatzaileak izango ditu osagai. Hona hemen:

- Ingurugiroaren informazioa.
- Informazio hidrologiko-hidraulikoa.
- Hirigintzako informazioa.

Arro bakoitzari dagokionean, hasieran arroaren deskribapen labur bat egingo dugu hiru osagaietako bakoitzaren informazioari heldu baino lehen.

Ingurugiroaren informazioari bagagozkio, arroan dauden interes naturalistikoko zonekin hasiko gara eta ondoren ubide nagusi bakoitzaren zonak, aztertutako kategorien arabera, adieraziko ditugu.

- A- Lehentasunezko interes naturalistikoko zonetako ertzak.
- B- Ondo artatutako landaredia duten ertzak.
- C- Higadura- eta lerradura-arriskua edo/eta akuiferoen urrakortasuna duten zonetako ertzak (LAAetako baldintzatzaile gainjarriak).
- D- Berreskuratzeko premia duten ertzak.

Ondoren babes-mota zehaztuko dugu. Horrekin batera zonaren hasierako PK eta amaierako PKren bidezko kokagunea, babesaren zabalera-dimentsioa eta, balioa izan dezakeen kasuetan, dagoen landaredia edo ertz hori berreskuratzeko arrazoa adieraziko ditugu. Halaber, egoki irizten den beste edozein informazio-mota adieraziko dugu.

Informazio hidrologiko-hidraulikoa ibaitarteak mailaka zehatz banatzean datza, bertan dauden ubideen ekarpen-arroen arabera, 10 Km<sup>2</sup> baino gehiagoko isurialde-arroa duten ibaitarteetatik abiatuta.

Hirigintzako informazioa arroa osatzen duten udalerrietan indarrean dagoen plangintzen zerrendan datza.

Aipatu beharrekoa da LAP honetan jasotako lurzoruaren sailkapena, jasotako alegazioak onartzearen ondorioz egindako zuzenketak salbu, 1996ko abenduan indarrean zegoena eta Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamenduko Sailak eskainitakoa dela.

1. agiriaren atal honetan honako informazio grafikoa ere gehitu dugu:

- A.0. MAPA OROKORRA, 1/150.000 ESKALAKOA.
- A.1.1. Artibai eta Lea ibaien arroen mapa orokorra
- A.1.2. Ea, Lagako, Oka, Amunategi, Artigas, Azega, Estepona eta Sollube ibaien arroen mapa orokorra.
- A.1.3. Merdeka, Andrakas eta Butroe ibaien arroen mapa orokorra
- A.1.4. Gobela eta Asua ibaien arroen mapa orokorra
- A.1.5. Mercadillo eta Galindo ibaien arroen mapa orokorra
- A.1.6. Aguera, Karrantza eta Kalera ibaien arroen mapa orokorra.
- A.1.7. Ibaizabal ibaiaren arroaren mapa orokorra
- A.1.8 Nerbioi ibaiaren arroaren mapa orokorra
- A.1.9 Kadagua ibaiaren arroaren mapa orokorra.

## **A.2. ARTIBAI IBAIAREN ARROAREN DESKRIBAPEN OROKORRA**

Artibai ibaiaren arroak 10.150 ha ditu eta ezaugarri hori eta beste batzuk kontuan izanik, erdi-mailako arro tipikoa dela esan dezakegu.

22Km-ko enbor-ibaiaren garapena eta 8 km-ko gehienezko zabalera izaki, bere konfigurazioa bete-betean kantaurialdeko ibai bati, ia 600 metrotik itsasoaren mailaraino jaisten denari, dagokiona dela esan dezakegu.

Goialdeko arroan enbor-ibaiaren hierarkia zehaztugabeagoa da eta batez ere Iruerreketa izeneko errekarerekin dator bat. Alabaina, Iruzubieta zonatik aurrera nabarmen da nagusi.

Arroaren erdialdeak badu nolabaiteko asimetria bere konfigurazioan eta ekarpenetan, izan ere, hura malkartsuagoa da ezkerrean eta drenaje-sarearen gutxienezko garapena du.

Arroaren behealdea asko estutzen da eta ez da batez besteko orokorra bikoiztu edo hirukoiztuko duen batez bestekoa izango duten uhar edo erreka gehiago sortzeko gauza.

Artibai ibaiaren azken ibaitarte zeharka gutxi ibiltzen diren meandroen segida batek osatzen du eta lokalki bakarrik ikus daitezke ubide zaharren ibaitarte batzuk, ia zintzilik.

### **A.2.1. Ingurugiro-osagaiaren alderdiak**

Arro honetan eta arro honen eta LEA ibaiaren arroaren artean kokatutako itsasertzeko ibarrean daude kokatuta "Mendexa-Berriatuko itsasertzeko ibarrak", 12. zenbakiarekin LAAetako lehentasunezko interes naturalistikoko areen zerrenda irekian agertzen direnak.

Ondoren gainerako ertzetako babes-mota zehaztuko dugu. Horrekin batera zonaren hasierako PK eta amaierako PKren bidezko kokagunea, babesaren zabalera-dimentsioa eta, balioa izan dezakeen kasuetan, dagoen landaredia edo ertz

hori berreskuratzeko arrazoia adieraziko ditugu. Halaber, egoki irizten den beste edozein informazio-mota adieraziko dugu.

### ARTIBAI

MOTA	KOKALEKUA	HASIERAKO PK	AMAIERA KO PK	ZABALE RA	OHARRAK
C	Eskuinaldeko ertza-Ezkerraldeko ertza	0+000	0+850	100	Urrakortasun altua
D	Ezkerraldeko ertza	4+325	5+125	10	
D	Eskuinaldeko ertza	4+325	5+675	10	
B	Ezkerraldeko ertza	5+125	5+575	25	Harizti-baso misto atlantikoa
D	Ezkerraldeko ertza	5+575	7+375	10	
B	Eskuinaldeko ertza	5+675	6+300	25	Harizti-baso misto atlantikoa
D	Eskuinaldeko ertza	6+300	6+800	10	
B	Eskuinaldeko ertza	6+800	6+950	25	Harizti azidoa
D	Eskuinaldeko ertza	6+950	7+625	10	
B	Ezkerraldeko ertza	7+375	7+550	10	Haltzadi kantauriarra
B	Ezkerraldeko ertza	7+550	7+625	25	Harizti azidoa, arte-oin isolatuak dituena.
B	Eskuinaldeko ertza	7+625	7+675	10	Haltzadi kantauriarra
D	Ezkerraldeko ertza	7+625	8+100	10	
D	Eskuinaldeko ertza	7+675	7+700	10	
B	Eskuinaldeko ertza	7+700	7+875	25	Harizti azidoa, arte-oin isolatuak dituena.
B	Eskuinaldeko ertza	7+875	8+000	10	Haltzadi kantauriarra
D	Eskuinaldeko ertza	8+000	8+250	10	
B	Ezkerraldeko ertza	8+100	8+550	10	Haltzadi kantauriarra
B	Eskuinaldeko ertza	8+250	8+550	10	Haltzadi kantauriarra
D	Eskuinaldeko ertza-Ezkerraldeko ertza	8+550	8+650	10	Baserri-ingurune erdi-abandonatua.
B	Ezkerraldeko ertza	8+650	9+025	10	Haltzadia ibaiertzean, baita gertuko noria baten deribazio-ubidearen ertzean ere.
B	Eskuinaldeko ertza	8+650	9+025	10	Haltzadi kantauriarra
D	Eskuinaldeko ertza	9+025	9+300	10	
D	Ezkerraldeko ertza	9+025	9+725	25	
B	Eskuinaldeko ertza	9+300	9+425	10	Hariztia, gaztainondo-oin isolatuak dituena.
D	Eskuinaldeko ertza	9+425	9+725	10	
B	Eskuinaldeko ertza	9+725	10+400	10	Haltzadi kantauriarra
B	Ezkerraldeko ertza	9+875	10+300	10	Haltzadi kantauriarra
B	Ezkerraldeko ertza	10+300	10+525	25	Harizti azidoa, arte-oin isolatuak dituena
D	Eskuinaldeko ertza	10+400	10+500	10	Pinudi gazteak eta ibaiertzeraino iristen diren sega-belardiak.
D	Ezkerraldeko ertza	10+550	11+025	10	Ibaiertzerainoko pinudiak.
D	Eskuinaldeko ertza	10+600	10+725	10	Plazakolako noriaren ingurua, erriberako landaredirik ez duena.
B	Eskuinaldeko ertza	10+725	10+800	10	Haritz-ilarak (Q. Robur) ibaiertzean.



EAEko IBAIEN ETA ERREKEN ERTZAK ANTOLATZEKO  
LURRALDEAREN ARLOKO PLANA -ISURIALDE KANTAURIARRA  
MEMORIA PARTIKULARRA

B	Eskuinaldeko ertza	10+800	11+000	25	Harizti azidoa.
C	Eskuina	10+900	11+025	50	Hegalen ezegonkortasuna.
B	Ezkerraldeko ertza	11+025	11+125	10	Harizti azidoa, erramu-oin isolatuak dituena.
B	Ezkerraldeko ertza	11+125	11+525	10	Haltzadi kantaularra
B	Eskuinaldeko ertza	11+425	11+650	10	Haltzadi kantaularra
D	Ezkerraldeko ertza	11+525	12+000	10	
D	Eskuinaldeko ertza	11+650	12+950	10	
D	Ezkerraldeko ertza	12+375	12+950	10	
D	Eskuinaldeko ertza	13+000	13+125	25	Urberuagako Balnearioaren ondoko eraikina erraustearen ondorioz sortutako obra-hondakinak.
B	Eskuinaldeko ertza	13+225	13+450	25	Harizti-baso misto atlantikoa
D	Ezkerraldeko ertza	13+225	13+450	10	Industria-nabearen ingurua.
D	Eskuinaldeko ertza	13+450	13+600	25	Abandonatutako segabelardiak.
B	Eskuinaldeko ertza-Ezkerraldeko ertza	13+500	14+400	10	Haltzadi kantaularra
D	Ezkerraldeko ertza	13+625	13+875	15	Abandonatutako segabelardiak.
D	Ezkerraldeko ertza	14+400	14+500	10	Kontrolik gabeko zabortegia
D	Eskuinaldeko ertza	14+425	14+875	10	C-6213 errepidearen eta Artibai ibaiaren arteko lursaila, haltzadia birsortzeko egokia.
B	Ezkerraldeko ertza	14+500	14+875	10	Haltzadia, haritz-oin isolatuak dituena.
C	Eskuinaldeko ertza-Ezkerraldeko ertza	14+775	20+270	100	Urrakortasun altua edo oso altua.
B	Eskuinaldeko ertza	14+975	15+100	10	Haltzadi kantaularra
B	Ezkerraldeko ertza	15+325	15+475	10	Haltzadi kantaularra
B	Eskuinaldeko ertza	15+150	15+250	50	Harizti azidoa
B	Eskuinaldeko ertza	15+150	15+775	10	Haltzadi kantaularra
D	Ezkerraldeko ertza	15+600	15+775	10	Haltzadia birsortzeko aukera eta premia.
D	Eskuinaldeko ertza	15+775	16+225	10	Inerteen hondakindegia eta haltzadia birsortzeko premia.
D	Ezkerraldeko ertza	15+850	16+175	10	Haltzadia birsortzeko aukera eta premia.
B	Ezkerraldeko ertza	18+200	18+250	25	Artea zubiaren, abandonatutako baserriaren eta ermitaren ondoan.
B	Ezkerraldeko ertza	18+600	18+850	25	Harizti-baso misto atlantikoa arte-oin isolatuak dituena
C	Ezkerraldeko ertza	18+800	18+900	50	Hegalen ezegonkortasuna, orain gutxiko masa-irristatzea ikus daiteke.
B	Ezkerraldeko ertza	19+000	20+270	10	Haltzadi kantaularra
B	Eskuinaldeko ertza	19+675	20+270	10	Haltzadi kantaularra

## URKO

MOTA	KOKALEKUA	HASIER AKO PK	AMAIERA KO PK	ZABAL ERA	OHARRAK
C	Eskuinaldeko ertza- Ezkerraldeko ertza	0+000	0+850	100	Urrakortasun altua
B	Eskuinaldeko ertza	0+175	0+250	10	Haltzadi kantauriarra
B	Eskuinaldeko ertza	0+425	0+675	10	Hiri-lorategietako zuhaitzi apaingarria.
D	Ezkerraldeko ertza	1+100	1+300	25	
B	Ezkerraldeko ertza	1+300	1+350	10	Haltz handi batzuk ondoan dituen zubi zaharra.
D	Ezkerraldeko ertza	1+550	1+625	15	
D	Ezkerraldeko ertza	1+625	1+675	25	
B	Eskuinaldeko ertza	1+125	1+250	10	Haltzadi kantauriarra
B	Ezkerraldeko ertza	1+675	1+750	10	Haritz-ilara (Q. Robur) ibaiaren ondoan.
D	Eskuinaldeko ertza	1+625	1+775	10	Haltzadia birsortzeko aukera eta premia.
C	Ezkerraldeko ertza	1+700	1+750	100	Oso urrakortasun altua
D	Ezkerraldeko ertza	1+750	1+775	10	
B	Eskuinaldeko ertza- Ezkerraldeko ertza	1+775	1+825	10	Gaztainondo handi bat ondoan duen zubi zaharra, Munibe jauregiaren inguruan kokatuta dagoena.
D	Ezkerraldeko ertza	1+825	2+175	10	
C	Eskuinaldeko ertza- Ezkerraldeko ertza	1+850	1+950	100	Urrakortasun altua edo oso altua.
C	Eskuinaldeko ertza- Ezkerraldeko ertza	2+075	2+125	100	Urrakortasun altua edo oso altua.
B	Eskuinaldeko ertza	2+175	2+625	10	Haltzadi kantauriarra
B	Ezkerraldeko ertza	2+175	2+750	10	Haltzadi kantauriarra
D	Eskuinaldeko ertza- Ezkerraldeko ertza	3+175	3+775	10	Erdizka bideratutako ibaitartea eta zuhaitzik ez duena.

### A.2.2. Hidraulika-osagaiaren alderdiak

Ondoren Artibai ibaiaren arroko ubide nagusiak ekarpen-azaleraren arabera zein ibaitartetan banatzen diren zehaztuko dugu.

#### III. MAILA ( $100 < A \leq 200 \text{ Km}^2$ )

Artibai, 0 - 2 Km (Ondarroa herriaren sarrera).

#### II. MAILA ( $50 < A \leq 100 \text{ Km}^2$ )

Artibai, 2 - 16,5 Km (Urkorekiko elkargunea).

#### I. MAILA ( $10 < A \leq 50 \text{ Km}^2$ )

Artibai, 16,5 - 22,6 Km (Aranbaltzekiko elkargunetik gertu).

Urko, 0 - 6,8 Km (Artibai eta Iteriagarra errekekiko elkargunea).

### **A.2.3. Hirigintza-osagaiaren alderdiak**

Ondoren Artibai ibaiaren arroa osatzen duten herriak zerrendatuko ditugu, indarrean dagoen hirigintza-plangintzarekin eta udalerrri bakoitzean dauden interes kulturalako lekuekin (horien izena eta balorazioa adieraziko dira).

#### **ONDARROA UDALERRIA**

Eskualdea Antolatzeko Plan Orokorra

1974ko ekainaren 1ean behin betiko onartutakoa.

Interes kulturalako elementuak.

Zubizaharra zubia, balorazioa B-14.

Ondarroa I zubia, balorazioa B-15.

#### **BERRIATUA UDALERRIA**

B motako arau subsidiarioak.

1993ko ekainaren 26an behin betiko onartutakoak.

Interes kulturalako elementuak.

Berriatua zubia, balorazioaren izapideak egiten.

#### **ETXEBARRIA UDALERRIA**

B motako arau subsidiarioak.

1997ko maiatzaren 22an behin betiko onartutakoak.

Interes kulturalako elementuak.

Etxebarria 5 zubia, balorazioa A-2.

#### **MALLABIA UDALERRIA**

B motako arau subsidiarioak.

1995eko irailaren 8an behin betiko onartutakoak.

#### **MARKINA-XEMEIN UDALERRIA**

B motako arau subsidiarioak.

1998ko otsailaren 22an behin betiko onartutakoak.

Interes kulturalako elementuak.

Behekobolutu zubia.

Ubillako dorrea zubia, balorazioaren izapideak egiten.

### **A.3. LEA IBAIAREN ARROAREN DESKRIBAPEN OROKORRA**

Lea ibaiaren arroak, mendebaldetik Oka ibaia (itsasertzeko erreka batzuekin batera) eta ekialdetik Artibai ibaia dituenak, Ibaizabal ibaiaren arroarekin kontaktu txiki bat besterik ez du iparraldetik.

74,7 Km<sup>2</sup> dituen arro txiki honek ipar-iparrekialde ardatz-norabide nagusia du. Mendebaldean Berdatzandi kararrizko sistema eta itsasbazterreko hareharrizko mendiak eta ekialdean, berriz, Oiz eta Kanpona gainen artean zeharka-meharka dabilen lerro malkartsua ditu aldamenean, Nabarniz, Bustarrigan eta itsasertzaren arteko kararrizko multzo konplexuan barrena zehaztugabe jarraituz.

Bere erreka bakanetako ibaitarte garaietako kota-galera azken herenean zehar Lea ibaiak duen malda txikiari aurkajartzen zaio.

Ubide nagusiak ez du ia uholde-ibarrik sortzen eta, bokaleak, meandro hesietan barrena doanak, alde batean eta bestean txandakatzen diren, baina uholdeak izateko duten aukera dela eta urbanizagarriak ez diren azalera handiagoak eskaintzen ditu.

Arroa osatzen duten udalerrietako hirigune nagusienak oro har goiko kotetan kokatutakoak dira: Lekeitio kararrizko gotorlekuan, Mendexa eta Amoroto hurbileko muinoetan, Aulesti terrazaren goiko aldean. Munitibar, berriz, ubidera hurbiltzen da eta Gizarburuaga, Ugarango auzoa (Oleta, Amoroto) edo Ispaztergo (Arropain) auzoa uholdeak izateko arriskua duten zonetan daude.

Arroaren landare-estalkia ingurukoaren antzekoa da. Haranak eta landa-auzune batzuk, Mendexaren kasuan bezala zabal samarrak izan daitezkeenak, inguratzen dituzten labore-lurretan eta belardietan izan ezik, lurzorua zatirik handienez intsinis pinua dago landatuta. Dena dela, gero eta joera handiagoa dago *eucaliptus globulus* sartzeko kimu berriak sartzeko eta izurrik ez izateko duen abantaila dela eta.

### A.3.1. Ingurugiro-osagaiaren alderdiak

Arro honetan eta arro honen eta Artibai ibaiaren arroaren artean kokatutako itsasertzeko ibarrean daude kokatuta “Mendexa-Berriatuko itsasertzeko ibarrak”, 12. zenbakiarekin LAAetako lehentasunezko interes naturalistikoko areen zerrenda irekian agertzen direnak. Halaber, Lea ibaiaren arroaren eta Ea ibaiaren artean daude kokatuta “Otoioko mendiak eta labarrak”, LAAetan barne hartutako interes naturalistikoko areetako 9. zenbakia dutenak.

Ondoren gainerako ertzetako babes-mota zehaztuko dugu. Horrekin batera zonaren hasierako PK eta amaierako PKren bidezko kokagunea, babesaren zabalera-dimentsioa eta, balioa izan dezakeen kasuetan, dagoen landaredia edo ertz hori berreskuratzeko arrazoa adieraziko ditugu. Halaber egoki irizten den beste edozein informazio-mota adieraziko dugu.

#### LEA

MOTA	KOKALEKUA	HASIERA KO PK	AMAIER AKO PK	ZABALER A	OHARRAK
B	Ezkerraldeko ertza	2+050	2+125	10	Haltzadi kantauriarra
C	Eskuinaldeko ertza- Ezkerraldeko ertza	2+100	3+900	100	Urrakortasun altua edo oso altua
B	Eskuinaldeko ertza	2+150	2+275	15	Harizti azidoa
B	Eskuinaldeko ertza- Ezkerraldeko ertza	2+350	3+000	10	Haltzadi kantauriarra
B	Eskuinaldeko ertza	2+750	2+875	15	Harizti azidoa
B	Eskuinaldeko ertza	3+175	6+550	10	Haltzadi kantauriarra
B	Ezkerraldeko ertza	3+275	4+375	10	Haltzadi kantauriarra
B	Ezkerraldeko ertza	3+925	4+000	15	Harizti azidoa
B	Eskuinaldeko ertza	4+125	4+375	50	Harizti azidoa
B	Ezkerraldeko ertza	5+000	6+525	10	Haltzadi kantauriarra
B	Ezkerraldeko ertza	6+250	6+525	15	Harizti azidoa eta artadia
B	Eskuinaldeko ertza	6+575	6+775	25	Artadia
D	Eskuinaldeko ertza	6+775	6+900	25	Haltzadia birsortzeko aukera.
B	Ezkerraldeko ertza	6+900	7+075	15	Harizti azidoa eta artadia
B	Eskuinaldeko ertza	6+900	8+275	10	Haltzadi kantauriarra
B	Ezkerraldeko ertza	6+900	8+600	10	Haltzadi kantauriarra
B	Ezkerraldeko ertza	7+175	7+300	40	Artadia
B	Eskuinaldeko ertza	8+275	8+625	50	Harizti azidoa eta artadia
B	Eskuinaldeko ertza	8+625	8+975	10	Haltzadi kantauriarra
B	Ezkerraldeko ertza	8+675	9+050	10	Haltzadi kantauriarra
B	Eskuinaldeko ertza	8+975	9+075	50	Harizti azidoa
B	Eskuinaldeko ertza	9+075	9+150	10	Haltzadi kantauriarra.
B	Eskuinaldeko ertza	9+300	9+525	50	Harizti azidoa eta artadia
B	Ezkerraldeko ertza	9+300	9+875	10	Haltzadi kantauriarra
B	Eskuinaldeko ertza	9+675	9+875	10	Haltzadi kantauriarra

EAEko IBAIEN ETA ERREKEN ERTZAK ANTOLATZEKO  
LURRALDEAREN ARLOKO PLANA -ISURIALDE KANTAURIARRA  
**MEMORIA PARTIKULARRA**

B	Eskuinaldeko ertza- Ezkerraldeko ertza	10+125	10+225	10	Haltzadi kantuariarra
B	Eskuinaldeko ertza- Ezkerraldeko ertza	10+325	10+425	10	Haltzadi kantuariarra
D	Eskuinaldeko ertza	10+800	10+825	25	Kontrolik gabeko zabortegia.
B	Eskuinaldeko ertza	10+875	11+050	25	Artadia, gaztainondo-oin nabarmenak dituena.
B	Ezkerraldeko ertza	11+075	11+300	25	Artadia
B	Ezkerraldeko ertza	11+750	11+775	10	Bi haritz eta gaztainondo bat baserri batetik gertu.
B	Eskuinaldeko ertza	11+850	12+000	10	Haltzadi kantuariarra
B	Eskuinaldeko ertza	12+225	12+350	10	Haltzadi kantuariarra
B	Ezkerraldeko ertza	12+225	12+325	10	Haltzadia haritzekin.
B	Ezkerraldeko ertza	12+325	12+475	25	Haltzadia haritzekin.
B	Eskuinaldeko ertza	12+350	12+475	50	Artadia
B	Eskuinaldeko ertza	12+475	12+700	25	Harizti-baso misto atlantikoa
B	Ezkerraldeko ertza	12+475	12+775	10	Haltzadia haritzekin.
B	Ezkerraldeko ertza	12+800	12+925	10	Haltzadia haritzekin.
B	Eskuinaldeko ertza	12+975	13+000	10	Haltzadi kantuariarra
B	Eskuinaldeko ertza	13+100	13+250	10	Haltzadia gaztainondo- oinekin.
B	Eskuinaldeko ertza	13+500	13+600	10	Haltzadi kantuariarra
D	Ezkerraldeko ertza	13+750	13+850	10	Atsedenerako area zubi zahar baten ondoan.
B	Ezkerraldeko ertza	13+900	14+150	10	Haltzadi kantuariarra
B	Eskuinaldeko ertza	14+150	14+300	25	Harizti azidoa
B	Ezkerraldeko ertza	14+700	14+775	10	Harizti azidoa
B	Eskuinaldeko ertza	14+775	14+800	10	Bi haritz handi noria baten ondoan.
D	Ezkerraldeko ertza	14+800	14+875	10	Haltzadia birsortzeko aukera duen toki hezea.
B	Eskuinaldeko ertza	14+875	14+900	10	Haritz bat eta tamaina handiko bi haltz.
B	Ezkerraldeko ertza	15+000	15+125	10	Gaztainondo-oin isolatuak.
B	Eskuinaldeko ertza	15+000	15+200	10	Haltzadi kantuariarra
D	Eskuinaldeko ertza	15+200	15+575	10	Haltzadia birsortzeko aukera duen toki hezea.
B	Eskuinaldeko ertza- Ezkerraldeko ertza	15+575	16+000	10	Haltzadia haritzekin.
B	Ezkerraldeko ertza	16+200	16+325	10	Haltzadia haritzekin.
B	Eskuinaldeko ertza	16+200	16+525	10	Haltzadi kantuariarra
B	Ezkerraldeko ertza	16+725	16+825	25	Harizti-baso misto atlantikoa
B	Eskuinaldeko ertza	16+825	17+375	10	Haltzadi kantuariarra
B	Ezkerraldeko ertza	16+825	17+425	10	Haltzadi kantuariarra
B	Eskuinaldeko ertza	17+575	17+825	10	Haltzadi kantuariarra
D	Eskuinaldeko ertza	17+575	17+825	15	Haltzadia birsortzeko aukera.
B	Ezkerraldeko ertza	17+600	17+650	10	Haltzadi kantuariarra
B	Eskuinaldeko ertza	17+825	18+675	25	Harizti-baso misto atlantikoa
B	Ezkerraldeko ertza	17+975	18+675	25	Harizti-baso misto atlantikoa
B	Eskuinaldeko ertza	18+675	19+000	10	Haltzadi kantuariarra
B	Ezkerraldeko ertza	18+675	19+100	10	Haltzadi kantuariarra

D	Eskuinaldeko ertza	19+000	19+025	10	Haltzadia birsortzeko premia.
B	Eskuinaldeko ertza	19+025	19+375	10	Haltzadi kantauriarra
B	Ezkerraldeko ertza	19+100	19+550	25	Haltzadi kantauriarra
D	Eskuinaldeko ertza	19+375	19+475	10	Haltzadia birsortzeko premia.
B	Eskuinaldeko ertza	19+475	19+800	10	Haltzadi kantauriarra
B	Ezkerraldeko ertza	19+550	19+800	10	Haltzadi kantauriarra
B	Ezkerraldeko ertza	20+250	20+375	10	Harizti azidoa
B	Eskuinaldeko ertza	20+500	20+575	10	Harizti azidoa
B	Eskuinaldeko ertza	20+625	20+700	10	Harizti azidoa
B	Ezkerraldeko ertza	20+800	20+925	10	Haltzadi kantauriarra
B	Eskuinaldeko ertza	20+800	21+270	10	Haltzadi kantauriarra

### **A.3.2. Hidraulika-osagaiaren alderdiak**

Ondoren Lea ibaiaren arroko ubide nagusiak ekarpen-azaleraren arabera zein ibaitartetan banatzen diren zehaztuko dugu.

#### II. MAILA ( $50 < A \leq 100 \text{ Km}^2$ )

Lea, 0 - 8 Km (Teileria errekarrekiko elkargunea).

#### I. MAILA ( $10 < A \leq 50 \text{ Km}^2$ )

Lea, 8 - 20 Km (BI-130 errepideko zubia).

### **A.3.3. Hirigintza-osagaiaren alderdiak**

Ondoren Lea ibaiaren arroa osatzen duten herriak zerrendatuko ditugu, indarrean dagoen hirigintza-plangintzarekin eta udalerrri bakoitzean dauden interes kulturalako lekuekin (horien izena eta balorazioa adieraziko dira).

#### **LEKEITIO UDALERRIA**

B motako arau subsidiarioak.

1996ko martxoaren 19an behin betiko onartutakoak.

Interes kulturalako elementuak.

Ondarroako errepideko zubia, balorazioa B-16.

### **BERRIATUA UDALERRIA**

B motako arau subsidiarioak.

1995eko ekainaren 26an behin betiko onartutakoak.

### **ISPAZTER UDALERRIA**

B motako arau subsidiarioak.

1995eko ekainaren 6an behin betiko onartutakoak.

### **MENDEXA UDALERRIA**

Markinako Eskualdeko Hiri Antolamendurako Plan Orokorra.

1974ko ekainaren 1ean behin betiko onartutakoa.

### **AMOROTO UDALERRIA**

Markinako Eskualdeko Hiri Antolamendurako Plan Orokorra.

1974ko ekainaren 4an behin betiko onartutakoa.

### **GIZABURUAGA UDALERRIA**

Markinako Eskualdeko Hiri Antolamendurako Plan Orokorra.

1974ko ekainaren 4an behin betiko onartutakoa.

### **AULESTI UDALERRIA**

B motako arau subsidiarioak.

1992ko azaroaren 5ean behin betiko onartutakoak.

### **MUNITIBAR-GERRIKAITZ UDALERRIA**

Markinako Eskualdeko Hiri Antolamendurako Plan Orokorra.

1974ko ekainaren 4an behin betiko onartutakoa.

Interes kulturalako elementuak.

Zubialdea zubia, balorazioa B-13.

Munitibar 6 zubia, balorazioaren izapideak egiten.

### **NABARNIZ UDALERRIA**

B motako arau subsidiarioak.

1992ko urriaren 7an behin betiko onartutakoak.



#### **A.4. OKA IBAIAREN ARROAREN DESKRIBAPEN OROKORRA**

Oka ibaiak, Mundaka eta Urdaibai ere deitu ohi denak, 178 Km<sup>2</sup>-ko guztizko azalera duen arroa du.

Ibar nagusiaren luzera 23 Km-koa da.

Arro honek Butroe ibaiaren arroa du mugakide mendebaldetik, Lea ibaiarena ekialdetik eta Ibaizabalena hegoaldeetik. Bere osotasunean “Urdaibaiko Biosferaren Erreserba Erabiltzeko eta Kudeatzeko Plan Zuzentzailea” izenekoak, 1993ko abuztuaren 3ko Dekretuak onartu zuenak, babesten du. Plan hori indarrean dagoen plangintza baino maila altuagoa duen antolamendu-elementua dugu. Hori dela eta, funtsezko baldintzatzaille gisa hartu da eraikuntza-erretiroak ezartzeko garaian.

Arro honen industria-garapena foku garrantzitsu batera, Gernikara, eta isolatutako puntu jakin batzuetara, Murueta-San Kristobal eta Muxikara esate baterako, mugatzen da.

Sare hidrografikoa oso sare anitz eta oso gisa deskriba dezakegu eta nahiko hierarkizatuta dagoela esan dezakegu, izan ere, Autzaganen jaio eta Ibaizabal ibaia, eskala geologikoari dagokionean oso hurbil dagoena, hartzen saiatzen den enbor-ibai batek, goi-ibarra baino kota askoz altuagoetatik abiatzen diren adar-errekek eta Golako eta Berrekondo adarrek, Okarekiko nabarmen paralelo direnek, osatzen dute.

Landare-estalki potentzialari dagokionean, barne hartzen dituen hiru sistema (mendi misto atlantikoa, haritza, Q. Robur, nagusi duena, muino-zonetako lurzoru azido eta hezeetan; mediterraneoar motako basoak, erramuaren eta gurbitzaren presentzia duten artadiak osatutakoa; eta urbazterreko basoa, uraren edo gune hezeen bideei jarraitzen dieten lerroek osatutakoa eta haltzadia ordezkari nagusi duena) bereizietatik artadi kantauriarraren orban handi samar batzuk eta harizti-baso batzuk besterik ez dira gelditzen.

Jatorrizko estalki horren galera handiak —lehenik untzigintza eta ikazkintza zirela eta, eta ondoren hazkuntza azkarreko espezieen ezarpena zela eta— tokiko paisajea aldatu du, zeharkako ondorio gisa uraren erretentzioaren kantitatea eta denbora murriztu dira, lurzoruan nahiz biosferan, eta, horrenbestez, uraren zikloa

nabarmen aldatu da. Hori besteak beste metatutako prezipitazio-maila jakin batetik aurrera ur-boladak bortitzagoak izatean hautematen da.

Hazkuntza azkarreko egurraren industria-ustiapena eztabaidaezina bada ere, produktu horren errendimenduetan gehiegi eragin gabe hiru sistema tipikoak pixkanaka berreskuratzea ahalbidetuko duten neurriak hartu behar dira.

Arroak ez du inolako erregulaziorik eta funtzionatzen ari diren azpiegitura txikiak ur-boladen egoeretan eraginik ez duten ur-kaptazio txikien antzekoak dira.

#### **A.4.1. Ingurugiro-osagaiaren alderdiak**

Oka ibaiaren arro osoa Urdaibaiko Biosferaren Erreserbari dagokio betebetan.

Horrenbestez, bertako ertz guztiak, ibaibide nagusiarenak zein adarrenak, A kategoriakoak izango dira (lehentasunezko interes naturalistikoko zonetako ertzak).

Gainera, Natura 2000 sarearen barruan honako espazio hauek ere berezi dira:

Urdaibaiko artadi kantauriarrak

Urdaibaiko itsasertzeko zonak eta padurak.

#### **A.4.2. Hidraulika-osagaiaren alderdiak**

Ondoren Oka ibaiaren arroko ubide nagusiak ekarpen-azaleraren arabera zein ibaitartetan banatzen diren zehaztuko dugu.

III. MAILA ( $100 < A \leq 200 \text{ Km}^2$ )

Oka, 0 - 4 Km (Golakorekiko elkargunea).

II. MAILA ( $50 < A \leq 100 \text{ Km}^2$ )

Oka, 4 - 6,9 Km (Mikieneretikiko elkargunea).

## I. MAILA ( $10 < A \leq 50 \text{ Km}^2$ )

Oka, 6,9 - 13 Km (Mundakarekiko elkargunea).

### **A.4.3. Hirigintza-osagaiaren alderdiak**

Udalerrietz gaindiko plangintza: Urdaibaiko Biosferaren Erreserba Erabiltzeko eta Kudeatzeko Plan Zuzentzailea, Eusko Jaurlaritzaren 242 Dekretuak, 1993ko abuztuaren 3koak, behin betiko onartutakoa.

Urdaibaiko Biosferaren Erreserba Erabiltzeko eta Kudeatzeko Plan Zuzentzailearen titulu hauek:

V Urdaibaiko Erreserbaren lurzoru-erregimena.

VI Zuzeneko Antolamendurako Arauak. Lurzoruaren Erabileren Erregimena.

VII Lurzoruaren erabileraren egintzen eta antolamenduaz kanpoko egoeretako eraikuntzen erregimena. Baimendutako erabileren erregimena.

Babes eta erabilera sustatu, baimendu eta debekatuen ezaugarri desberdinak definitzen ditu.

Oka ibaiaren arroan Plan Zuzentzaileak gutxienez bi ertzetako 20 metroko akuiferoen babesa definitzen du.

#### **MURUETA UDALERRIA**

B motako arau subsidiarioak.

1997ko abenduaren 5ean behin betiko onartutakoak.

#### **FORUA UDALERRIA**

A motako arau subsidiarioak.

1992ko maiatzaren 12an behin betiko onartutakoak.

#### **KORTEZUBI UDALERRIA**

B motako arau subsidiarioak (Gernika-Lumo).

1986ko azaroaren 5ean behin betiko onartutakoak.

#### **ARRATZU UDALERRIA**

B motako arau subsidiarioak (Gernika-Lumo).  
1986ko azaroaren 5ean behin betiko onartutakoak.

#### **AJANGIZ UDALERRIA**

B motako arau subsidiarioak (Gernika-Lumo).  
1986ko azaroaren 5ean behin betiko onartutakoak.

#### **GERNIKA UDALERRIA**

B motako arau subsidiarioak (Gernika-Lumo).  
1986ko azaroaren 5ean behin betiko onartutakoak.

#### **MUXIKA UDALERRIA**

B motako arau subsidiarioak.  
1992ko urriaren 7an behin betiko onartutakoak.

#### **MUNDAKA UDALERRIA**

B motako arau subsidiarioak.  
1993ko martxoaren 4an behin betiko onartutakoak.

#### **MENDATA UDALERRIA**

A motako arau subsidiarioak.  
1996ko ekainaren 20an behin betiko onartutakoak.

#### **MUNITIBAR UDALERRIA**

Markinako Eskualdeko Hiri Antolamendurako Plan Orokorra.  
1974ko ekainaren 1ean behin betiko onartutakoa.

#### **SUKARRIETA UDALERRIA**

Eskualdeko Hiri Antolamendurako Plan Orokorra.  
1986ko ekainaren 22an behin betiko onartutakoa.

#### **NABARNIZ UDALERRIA**

B motako arau subsidiarioak.  
1992ko urriaren 7an behin betiko onartutakoak.

#### **IBARRANGELU UDALERRIA**

Eskualdeko Hiri Antolamendurako Plan Orokorra.

1969ko ekainaren 22ko behin betiko onartutakoa.

### **EREÑO UDALERRIA**

B motako arau subsidiarioak.

1990eko apirilaren 17an behin betiko onartutakoak.

## **A.5. SOLLUBE IBAIAREN ARROAREN DESKRIBAPEN OROKORRA**

18,8 Km<sup>2</sup> dituen arro txiki hau, Oka ibaiarenaren antzera, “Urdaibaiko Biosferaren Erreserba Erabiltzeko eta Kudeatzeko Plan Zuzentzaileak”, indarrean dagoen plangintza baino maila gehiagoko antolamendu-elementua denak, babesten du.

Sollube ibaia, Mape izenez ere ezagutzen dena, Urdaibai ibaiaren azken ibaitartearen zeharkako adar bat da, mendebaldetik ekialderako joera nabarmena du. Bere arroa ondo bereizitako bi atalek osatzen dute: batetik, itxieratik ehun bat metro beheragotik hasita bokalera arte belardiak eta labore-lurrak eta baserriren bat edo beste tartekatzen dira, Altamira eta San Kristobaleko landa-auzuneak barne; bestetik, itxieratik gora ingurunea ia erabat basoko jarduerari lotutakoa da. Gaur egun ingurune hori oso kaltetuta dago 1989an izan zen sutea dela eta.

Sollube ibaiak Mundakako itsasadarrera isurtzen du. Hori ziurrenik Euskal Herriko zona hezerik baliotsuena izango da duen berezko esanahiarengatik nahiz duen kontserbazio-egoera onargarriarengatik. Hori dela eta lurralde hau guztia Urdaibaiko Biosferaren Erreserbaren barruan hartu da barne.

Ubide nagusiari dagokion aztertutako zatia 6 Km baino gehiagokoa da eta Murueta eta Busturia udalerrien artekoa da.

Zona honetako landaredi potentziala nagusiki haritzez, lizarrez, gaztainondoez, hurritzez eta ezkiez osatutako baso hostogalkorra da, belar-landareek eta goroldioak bakarrik osatutako oihanpea duena.

### **A.5.1. Ingurugiro-osagaiaren alderdiak**

Sollube ibaiaren arro osoa Urdaibaiko Biosferaren Erreserbari dagokio betebete.

Horrenbestez, bertako ertz guztiak, ibaibide nagusiarenak zein adarrenak, A kategoriakoak izango dira (lehentasunezko interes naturalistikoko zonetako ertzak).

Gainera, Natura 2000 sarearen barruan honako espazio hauek ere berezi dira:

Urdaibaiko artadi kantauriarrak

#### **A.5.2. Hidraulika-osagaiaren alderdiak**

Ondoren Sollube ibaiaren arroko ubide nagusiak ekarpen-azaleraren arabera zein ibaitartetan banatzen diren zehaztuko dugu.

I. MAILA ( $10 < A \leq 50 \text{ Km}^2$ )

Sollube, 0 - 2,9 Km (Artolarekiko elkargunea).

#### **A.5.3. Hirigintza-osagaiaren alderdiak**

Ondoren Sollube ibaiaren arroa osatzen duten udalerriak zerrendatuko ditugu indarrean dagoen hirigintza-plangintzarekin batera.

##### **BUSTURIA UDALERRIA**

B motako arau subsidiarioak.

1994ko azaroaren 11n behin betiko onartutakoak.

##### **MURUETA UDALERRIA**

B motako arau subsidiarioak.

1997ko abenduaren 5ean behin betiko onartutakoak.

## **A.6. ESTEPONA IBAIAREN ARROAREN DESKRIBAPEN OROKORRA**

Estepona ibaiaren arroa Erkidegoan azalera handiena dutenetariko bat da. 24,7 Km<sup>2</sup> ingurukoa denez, ibai nagusiaren luzera txikia denez (5 km baino gutxiago) eta batez ere adarretako urek duten kota-beherakada handia denez, bere funtzionamendu-eskema ia mediterraneoarra dela esan dezakegu.

Oro har, Esteponaren arroa bi sistematan bana dezakegu:

- Arro altuak, benetako amildegi direnak. Horien meseta eta hegal arraroak baserri bakanek betetzen dituzte.
- Hondartzako area handia. Bertan oso ondo bereiz daitezke jalkitze alubialeko zona eta iparraldearekiko mugakide den itsasertzeko duna.

Arro honetan ez dago ia uholde-lautada tipikorik, beste ibaien erdialdeko ibaibideetan bezala hiri- eta industria-presio handiko area osatuko duenik.

Jatorrizko biztanleguneak Basigo-Zubiaur zonakoa, lautada alubialaren hasierakoa, Mañuas, Infernuren goialdeko arrokoa, eta San Pelaio iparrekialdeko ertzekoa ziren. Erdialdeko arroan burdinolaren batek osatzen du zona honek mendearen hasiera arte izan zuen okupazio-eskema.

Etxebizitzen eraikuntza (hori inidianoentzako eta ondoren bertako udatiarrentzako erresidentzia ugari eraikitzearekin hasi zen) 60ko hamarkadatik aurrera izugarri hazi zen itsasertzeko dunaren gainean eta Esteponaren ibarrean zehar benetako hirigintza-barrera bat ezarriz. Eraikuntza-gehitze hau ez da oraindik amaitu, nahiz eta eraikuntzen tipologia aldatu egin den.

Hiru ustiapen-motatan oinarritutako tradiziozko nekazaritza-jarduera —kota altuetan abeltzaintza eta baso-ustiapena, babestutako hegaletan mahastizaintza eta kalitatezko barazkiak (zainzuriak, tomatea, artoa eta abar) lautada alubialean— aldatu egin da, lehenengo biei dagokienean behintzat.

Azken berrogei urteetan hazkuntza azkarreko baso-espezieen ezarpen orokorrak okupatu ditu hartze-arroen zatirik handienak, baso atlantiarrak, ugarietak,



nahiz mediterraneoarrak, bakanak direnak, baita filoxera izurria arte muino-hedadura handiak okupatzen zituzten mahastiak ere, desplazatuz.

Gainerako landaredi naturala ia ez da existitu ere egiten hedadura jakin bateko mantxei bagagozkio. Hedadura hori pinudiei gainezarrita bizirauten duten eta unada garbiak nekez osatzen dituzten espeziemenen presentziara mugatzen da.

Erriberek ez dute egoera bera, izan ere, goialdeko ibaibideetan behintzat haltz, sahats eta mimosa ugari dituzten galeria-basoek iraun dute.

#### **A.6.1. Ingurugiro-osagaiaren alderdiak**

Ondoren ertzetako babes-mota zehaztuko dugu. Horrekin batera zonaren hasierako PK eta amaierako PKren bidezko kokagunea, babesaren zabalera-dimentsioa eta, balioa izan dezakeen kasuetan, dagoen landaredia edo ertz hori berreskuratzeko arrazoiak adieraziko ditugu. Halaber egoki irizten den beste edozein informazio-mota adieraziko dugu.

### **ESTEPONA**

MOTA	KOKALEKUA	HASIER AKO PK	AMAIER AKO PK	ZABAL ERA	OHARRAK
B	ezkerraldeko ertza	0+650	0+800	25,00	Harizti-baso mistoa
D	ezkerraldeko ertza	0+900	1+050	75,00	Atsedenerako potentziala
D	eskuinaldeko ertza	1+850	1+950	75,00	Harizti-baso mistoa
D	eskuinaldeko ertza	1+550	1+625	10,00	Haltzadi kantauriarra
B	eskuinaldeko ertza	2+025	2+200	75,00	Harizti-baso mistoa
D	ezkerraldeko ertza	2+600	2+900	25,00	Haltzadi kantauriarra

#### **A.6.2. Hidraulika-osagaiaren alderdiak**

Ondoren Estepona ibaiaren arroko ubide nagusiak ekarpen-azaleraren arabera zein ibaitartetan banatzen diren zehaztuko dugu.

I. MAILA ( $10 < A \leq 50 \text{ Km}^2$ )

Estepona, 0 - 5,3 Km.

### **A.6.3. Hirigintza-osagaiaren alderdiak**

Ondoren Estepona ibaiaren arroa osatzen duten udalerriak zerrendatuko ditugu indarrean dagoen hirigintza-plangintzarekin batera.

#### **BAKIO UDALERRIA**

B motako arau subsidiarioak.

1985eko azaroaren 29an behin betiko onartutakoak.

#### **MUNGIA UDALERRIA**

B motako arau subsidiarioak.

1996ko ekainaren 24an behin betiko onartutakoak.

## **A.7 BUTROE IBAIAREN ARROAREN DESKRIBAPEN OROKORRA**

Butroe ibaiaren arroak 168,3 km<sup>2</sup>-ko azalera du eta ubide nagusiaren luzera 40 km ingurukoa da.

Ubide nagusiaren 40 Km horietatik lehen 28ak, zonarik urbanizatuenarekin eta uholdeen inguruko arazo gehien dituenarekin bat datozenak, eskematizatu ditugu.

Arroaren drenajearen eskemak isurialde kantauriarreko garapen orekatuenetariko bat du, izan ere, uholde-lautada bakar bat du, enbor-ibaiaren erdialdeko ibaibidean.

Formazio hori Margartza eta Kukutxas arteko estuguneek, ia fiord direnek, osatzen dute; puntu horretatik aurrera goialdeko zonaren ezaugarri diren meandro erdi-dibagatzaile hedatuak sakon sartzen dira. Hori dela eta, terraza bakarren bat (Abaniko, Plentziako muturra) eta padura-zona txiki bat (bertan mareek eragiten dute eta besteren artean Txipio, eta Txakursulo aipa ditzakegu) besterik ez ditugu.

Ia azpiarro guztiek lautada-zonan isurtzen dute, izan ere, ibaibidearen amaieran arroa asko estutzen da eta drenaje-sarea uholdezkoagoa da.

Eskema funtzionala eta lurzoruen okupazio eta erabilerena zona altu bati eta nabarmen landatarrak diren azpiarroak dituenari eta jatorrizko eskualdeguneak ezarri berri den industria-korridore baten finkapenari bide ematen dion erdialdeko eta behealdeko ibaitarte bati dagokiona da.

Bokalearen inguruko itsasertzeko zona tradizioz Bizkaiko turismogune nagusietako bat da, bere ahalmena mugatzen duen hainbat motatako degradazioa izan arren indarrean jarraitzen duena.

### A.7.1. Ingurugiro-osagaiaren alderdiak

Butroe ibaiaren arroaren barruan, bokaletik gertu, "Gorliz-Armintza" izeneko area, 7. zenbakiarekin LAAetako lehentasunezko interes naturalistikoko areen zerrenda irekian agertzen dena, dugu.

Ondoren gainerako ertzetako babes-mota zehaztuko dugu. Horrekin batera zonaren hasierako PK eta amaierako PKren bidezko kokagunea, babesaren zabalera-dimentsioa eta, balioa izan dezakeen kasuetan, dagoen landaredia edo ertz hori berreskuratzeko arrazoia adieraziko ditugu. Halaber egoki irizten den beste edozein informazio-mota adieraziko dugu.

### BUTROE

MOTA	KOKALEKUA	HASIERAKO PK	AMAIERAK O PK	ZABALE RA	OHARRAK
D	eskuinaldeko ertza	6+700	9+300	50,00	Atsedenerako potentzia.
B	eskuinaldeko ertza	7+750	8+000	50,00	Haltzadi kantauriarra
D	eskuinaldeko ertza	7+750	8+400	50,00	Haltzadi kantauriarra
D	eskuinaldeko ertza	8+000	8+500	50,00	Haltzadi kantauriarra
D	ezkerraldeko ertza	8+000	8+300	20,00	Haltzadi kantauriarra
D	ezkerraldeko ertza	8+300	9+400	100,00	Atsedenerako potentziala.
D	eskuinaldeko ertza	8+500	8+900	75,00	Hondakindegia.
D	eskuinaldeko ertza	8+900	9+000	20,00	Haltzadi kantauriarra
B	eskuinaldeko ertza	9+000	9+300	60,00	Harizti-baso mistoa
D	eskuinaldeko ertza	9+300	9+400	20,00	Harizti-baso mistoa
B	eskuinaldeko ertza	9+650	9+800	50,00	Harizti-baso mistoa
B	ezkerraldeko ertza	9+700	9+850	100,00	Harizti-baso mistoa
D	eskuinaldeko ertza	10+200	10+450	50,00	Haltzadi kantauriarra
B	eskuinaldeko ertza	10+950	11+050	100,00	Harizti-baso mistoa
D	ezkerraldeko ertza	11+100	11+400	75,00	Haltzadi kantauriarra
B	ezkerraldeko ertza	12+000	12+400	100,00	Harizti-baso mistoa
D	ezkerraldeko ertza	12+400	12+600	75,00	Harizti-baso mistoa
D	ezkerraldeko ertza	12+600	12+850	50,00	Haltzadi kantauriarra
D	ezkerraldeko ertza	12+850	13+000	25,00	Haltzadi kantauriarra
D	eskuinaldeko ertza	13+000	13+250	50,00	Haltzadi kantauriarra
D	ezkerraldeko ertza	13+000	13+300	50,00	Haltzadi kantauriarra
B	ezkerraldeko ertza	13+550	13+700	100,00	Harizti-baso mistoa
D	eskuinaldeko ertza	14+050	14+300	50,00	Haltzadi kantauriarra
D	ezkerraldeko ertza	14+050	14+300	25,00	Haltzadi kantauriarra
D	eskuinaldeko ertza	15+100	15+250	25,00	Haltzadi kantauriarra
D	eskuinaldeko ertza	15+250	15+400	75,00	Haltzadi kantauriarra
D	ezkerraldeko ertza	15+500	15+550	50,00	Harizti-baso mistoa
D	ezkerraldeko ertza	15+875	15+950	100,00	Haltzadi kantauriarra
B	ezkerraldeko ertza	18+275	18+600	50,00	Harizti-baso mistoa
B	ezkerraldeko ertza	18+875	19+350	100,00	Haltzadi kantauriarra
D	eskuinaldeko ertza	19+000	19+500	50,00	Haltzadi kantauriarra
D	ezkerraldeko ertza	19+350	19+500	50,00	Haltzadi kantauriarra
D	ezkerraldeko ertza	19+850	19+950	50,00	Haltzadi kantauriarra

D	ezkerraldeko ertza	20+475	20+550	25,00	Haltzadi kantaularra
D	eskuinaldeko ertza	20+625	20+650	50,00	Haltzadi kantaularra
D	ezkerraldeko ertza	22+200	22+600	50,00	Haltzadi kantaularra
D	eskuinaldeko ertza	22+250	22+300	50,00	Sahastia.
B	ezkerraldeko ertza	22+300	22+500	75,00	Harizti-baso mistoa
D	eskuinaldeko ertza	22+600	22+700	25,00	Haltzadi kantaularra
D	ezkerraldeko ertza	22+850	23+150	100,00	Atsedenerako potentziala
D	eskuinaldeko ertza	24+000	24+100	10,00	Haltzadi kantaularra
D	eskuinaldeko ertza	24+200	24+300	10,00	Haltzadi kantaularra
D	eskuinaldeko ertza	24+700	24+850	25,00	Haltzadi kantaularra
D	ezkerraldeko ertza	24+700	24+850	25,00	Haltzadi kantaularra
D	ezkerraldeko ertza	25+100	25+200	25,00	Haltzadi kantaularra
B	eskuinaldeko ertza	26+800	26+900	25,00	Haltzadi kantaularra
B	ezkerraldeko ertza	26+800	26+850	25,00	Haltzadi kantaularra
B	ezkerraldeko ertza	27+800	27+950	25,00	Haltzadi kantaularra
D	ezkerraldeko ertza	28+200	28+600	40,00	Haltzadi kantaularra
B	ezkerraldeko ertza	29+200	29+450	60,00	Harizti-baso mistoa
D	ezkerraldeko ertza	29+500	29+700	30,00	Haltzadi kantaularra
B	ezkerraldeko ertza	30+050	30+625	20,00	Haltzadi kantaularra
D	eskuinaldeko ertza	30+350	30+750	35,00	Haltzadi kantaularra
D	ezkerraldeko ertza	30+700	30+950	25,00	Haltzadi kantaularra
D	eskuinaldeko ertza	30+800	30+950	20,00	Sahastia

#### **A.7.2. Hidraulika-osagaiaren alderdiak**

Ondoren Butroe ibaiaren arroko ubide nagusiak ekarpen-azaleraren arabera zein ibaitartetan banatzen diren zehaztuko dugu.

##### III. MAILA ( $100 < A \leq 200 \text{ Km}^2$ )

Butroe, 0 - 19,5 Km (Karmelo Etxegarai kaleko ibaiaren gaineko zubia).

##### II. MAILA ( $50 < A \leq 100 \text{ Km}^2$ )

Butroe, 19,5 - 29,7 Km (Caprinicosekiko elkargunea).

##### I. MAILA ( $10 < A \leq 50 \text{ Km}^2$ )

Butroe, 29,7 - 37 Km (BI-121 errepideko zubia).

### **A.7.3. Hirigintza-osagaiaren alderdiak**

Ondoren Butroe ibaiaren arroa osatzen duten udalerriak zerrendatuko ditugu indarrean dagoen hirigintza-plangintzarekin batera.

#### **PLENTZIA UDALERRIA**

B motako arau subsidiarioak.

1992ko apirilaren 11n behin betiko onartutakoak.

#### **GORLIZ UDALERRIA**

B motako arau subsidiarioak.

1992ko maiatzaren 29an behin betiko onartutakoak.

#### **BARRIKA UDALERRIA**

B motako arau subsidiarioak.

1991ko martxoaren 14an behin betiko onartutakoak.

#### **LEMOIZ UDALERRIA**

B motako arau subsidiarioak.

1989ko irailaren 2an behin betiko onartutakoak.

#### **GATIKA UDALERRIA**

B motako arau subsidiarioak.

1994ko ekainaren 7an behin betiko onartutakoak.

#### **URDULIZ UDALERRIA**

B motako arau subsidiarioak.

1985eko uztailaren 26an behin betiko onartutakoak.

#### **LAUKIZ UDALERRIA**

Hiri Antolamendurako Plan Orokorra

1967ko uztailaren 26an behin betiko onartutakoa.

#### **MUNGIA UDALERRIA**

B motako arau subsidiarioak.

1996ko ekainaren 24an behin betiko onartutakoak.

### **MARURI UDALERRIA**

B motako arau subsidiarioak.

1994ko abenduaren 20an behin betiko onartutakoak.

### **GAMIZ-FIKA UDALERRIA**

B motako arau subsidiarioak.

1986ko otsailaren 12an behin betiko onartutakoak.

### **MEÑAKA UDALERRIA**

B motako arau subsidiarioak.

1988ko uztailaren 26an behin betiko onartutakoak.

### **ARRIETA UDALERRIA**

Eskualdeko Hiri Antolamendurako Plan Orokorra.

1967ko uztailaren 26an behin betiko onartutakoa.

### **FRUIZ UDALERRIA**

Eskualdeko Hiri Antolamendurako Plan Orokorra.

1967ko uztailaren 26an behin betiko onartutakoa.

### **ERRIGOITI UDALERRIA**

B motako arau subsidiarioak.

1989ko azaroaren 3an behin betiko onartutakoak.

### **LARRABETZU UDALERRIA**

B motako arau subsidiarioak.

1985eko irailaren 6an behin betiko onartutakoak.

### **MORGA UDALERRIA**

A motako arau subsidiarioak.

1992ko urtarrilaren 8an behin betiko onartutakoak.

## **A.8. ARRO TXIKIEN DESKRIBAPEN OROKORRA**

### **A) ARTIGAS ETA BERE ADARRAK**

Artigas ibaiaren arroak  $12 \text{ km}^2$ -ko azalera du eta bere ubide nagusiak 3,4 Km ditu.

Amezaga eta Landabaso erreketan ubide bateratua  $4,2 \text{ km}^2$ -ko azalera batean hedatzen da. Ubideen luzera 2,5 eta 2 Km-koa da hurrenez hurren, elkargunera arte eta hemendik bokalera arte km 1 du.

Perretxina erreka  $2,2 \text{ km}^2$ -ko arroa eta km 1eko luzera ditu.

Arro hauek Okarenaren iparmendebaldeko alderdia osatzen dute —Sollube-Burgoa mendi-bizkarraren iparraldeko eta ekialdeko urak biltzen dituzte— eta tolestadura horren, Bizkaian nagusi den IM-HE norabidea duenaren, hurrengo ekialdeko inguruko mendietaraino iristen dira.

Artigas ez beste guztiek (Artigasek bere ibilbidearen zatirik handienean norabide tektoniko horri jarraitzen dio) modu radialean egiten dute bat Bermeoko “Artza-n”, mareen eragina duen zona batean beren urak batuz.

Multzo hidrografikoaren hartze-arroek eskema bera dute: goiko eta erdialdeko kotetan intsinis pinuaren ustiapen orokortuak, mendi mistoaren zati batzuekin batera; kota baxu eta goraguneetan, berriz, bi erreka pareen artean belardi eta labore-lur atlantiarrei eusten zaie.

Landare-estalkia ia jarraia da, nahiz eta kota altuetan paper-pasta lortzeko pinuaren industria-lanketara bideratutako hedadura jakin bateko jabego pribatuak izateak—batzuetan— Artigaren zordun diren erreken arro osoak hartzen dituzten azalera handien baso-soilketa ahalbidetzen du aldizka.

### **A) AZEGA**

Erreka honen arroak  $5,2 \text{ km}^2$ -ko azalera du eta bere ubidearen luzera 3,7 Km-koa da.



Bere ubideak Bermeo eta Bakio udalerriak zeharkatzen ditu eta azken horretan itsasoratzen da.

**B) AMUNATEGI**

